Mixeri eta Mau

Haur kantuak eta jolasak

Mixeri eta Mau

Ume kantuak eta jolasak

Testuak:
Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. VI, Juegos infantiles en Vasconia.
Labayru Ikastegiaren Herri Literatura Artxiboa eta beste batzuk.

Sarrera eta prestakuntza didaktikoa: Idoia Alzibar.

Labayru Ikastegia
Bilbao
2006

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta
Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan du.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (06-07-24).

© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Silutegia: Baster S.L.L.

Lege Gordailua: BI-2270-06
ISBN: 84-89816-12-3

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

Aurkibidea

Hitzaurrea 11

Egoeraren arabera erabiltzeko 16
Kili-kili egiteko 17
Zilar baba 17
Kukuka ibiltzeko 17
Kuku miku 17
Paparra eta pipirri 18
Jateko orduan esateko 18
Txitxi tela 18
Pinpin txoria 19
Lehenengo pausoak ematean erabiltzeko 19
Hau sankoa 19
Xango-mango 20
Kattalin, pertolin, zakuto 21
Txiri-txiri 22
Bera dago 22
Laztantxoak egiteko 23
Hau berez 23
Ahuntzak bilgorra non du? 23
Ahuntzak non du bilgorra? 24
Osasun arazoak arintzeko 24
Senda-senda mediku 24
Lau ziriren pupua 25
Kadiran ttotto 25
Kirkilak bat eta kirkilak bi 26
Jesus, Ama Birjina 27
Begia barrura 27
Oihuka dabilenean esateko 27
Xo! 27
Baratzean dagoenean erabiltzeko 27
Kukulumera 28
Mariana gorri 28
Adarrak atera 28
Txintxin belarra 29

Gauza bat aurkitzen duenerako 29
Gauza bat bilatu dut 29
Bilin-balaunka 29
Dinbili-danba 30
Txilin-txilin bonba 30
Din-dan, nor hil da? 31
Arre burrikito 32
Sirrin-sarran 33
Brin-bran boleran 33
Kisketean 34
Kadera baten ganean 34
Ezkutaketan 35
Kalabuxin-kalabuxin 35
Berbetan 35
Maria goikoa 36
Korroan egiteko 37
Txiribiri 37
Bira-bira monte 38
Hiru Errege Magoak 39
Katua eta sagua 40
Zapi zuria atzetik 42

Hatzekin jolasteko 43
Atia-pitia 43
Honek arrautza ekarri 43
Pinpin serapin 44
Atxea-motxea 45
Hau eta hau ezkondu 45
Honek eta honek 46
Eritxikina 46
Hau txoritxoa 47
Bat: Matxin Parrat 47
Zenbat diran hamar diran 48
Lehenengotxu hori 50

Eskuekin jolasteko 53
Eragiozu eskutxuari 53

Mox-mox katutxo 54
Katarra mixon 55
Mixi marrau 55
Mixeri eta mau 56
Txalo pin txalo 56
Talo, talotxin 57
Ttalo, ttalo amatxi! 57
Hor zor, hemen zor 58

Arre-arre egiteko 59
Antontxu 59
Arre-arre mandako 60
Arre burrikito 60
Bat eta bi, hiru eta lau 61
Ttikirriki-ttiki-tton 61
Ttanpirrinpinttona 62
Txili-txili mañe 63
Kadiran 64

Lo kantak 65
Haurra egizu lotxoa 65
Binbili-bonbolo 65
Bonbolontena 66
Bolon bat eta bolon bi 66
Dingilin dangun 67
Don, don Beleron 68
Lo, lo, lo 68
Logura naz 69
Lotxo 69
Loa, loa! Santa loa! 70
Nire maitea 70
Txirrintxanketan 71
Loa loa txuntxurrun berde 71
Runkuttunku-ttunkuttunku 72

Umeen hizkera 73

Hitzaurrea

Zer esan ahal diozu umeari kili-kili egiten diozun bitartean? Eta gauza bat aurkitzen duenean, zer errezitatu behar da jabea ager dadin? Eta hanka bietatik helduta, zer esan eta egin behar zaio haurrari barre-zantzoka has dadin?

Sasoi batean, gure aitona-amonek sutondoan geundela istorioak, pasadizoak, kantak eta beste hainbeste gauza irakasten zizkiguten. Era honetara batu dugu belaunaldiz belaunaldi gure ahozko literaturak duen altxorra, paperera ekarri arte.

Umeen irakaskuntzan eta gurasoek dituzten hutsuneak eta beharrizanak bete nahian sortu da egitasmo hau. Hemen aurkezten dugun informazioa 0 eta 5 urte bitarteko txikitxoen irakasle eta gurasoentzat dago pentsatuta. Irakasleek eta gurasoek, askotan, umeak lo ipintzean edo eurekin jolastean, betiko kantak eta jolasak erabiltzen dituzte, monotonian sartzeko arriskuaz. Gogaitasunean ez jausteko eta betiko kantak eta jolasak erabili ahal izateko, hainbat aukera eskaintzen dira liburu honetan. Gaiok bost atal nagusitan sailkatuta daude:

Egoera desberdinetan erabiltzeko kantak eta errezitatuak
Hatzekin jolasteko kantak eta errezitatuak
Eskuak erabiliz jolasteko kantak eta errezitatuak
Umeekin arre-arre egiteko kantak eta errezitatuak
Lo kantak

Egoera bakoitza ondo azalduta dator, dagokion kantua edo errezitatua zelan erabili jakiteko.

Kantuok hainbat iturritatik batu dira; kasu batzuetan, herriko jendeak zuzenean emandakoak dira, eta beste batzuetan, aldiz, liburuetatik batutakoak, besteak beste, Azkueren *Euskal Kantutegia* eta *Euskalerriaren Yakintza* liburuetatik. Dena den, lan honen iturririk handiena Etniker Euskalerriak argitaratuta duen Euskalerriko Atlas Etnografikoaren IV. atala izan da, *Juegos infantiles en Vasconia*, hain zuzen ere.

Informazioa aukeratzean, ez ditugu eremu bateko kantuak eta jolasak bakarrik aukeratu nahi izan, Euskal Herriko leku

askotakoak batzen saiatu gara, jendeak berea identifikatu dezan eta beste inguru batekoak ikas ditzan.

Bilketa modu honetara aurkeztu dugu: lehenengo, azalpena dator, atzetik, kanta, jolasa edo errezitatua. Azken hori, batetik, batu den moduan, aldaketarik gabe aurkezten dugu, eta bestetik, dagokion euskalkia errespetatuz, modu literarioan ikusiko duzu. Ahal izan dugun guztietan, non jaso den esaten da, leku zehatza argituz, baina beste batzuetan, eremua aipatu behar izan da, zehazki non jaso den ez dakigulako. Musika ere azaltzen da batzuetan, aproposa ikusi dugun guztietan. Pentagrametan herri-hizkera izan da irizpidea, eta leku jakin baten agertzen diren eran azaldu dira testuak. Doinua eta letra erraza dituzten kantuak sartu ditugu, umeekin zailtasunik gabe jolastu ahal izateko. Jakina denez, kantuek aldaera ugari izaten dituzte, baina momentuan egokiena iruditu zaiguna aukeratu dugu.

Abestiak bi modutara aurkeztu ditugula esan dugu. Abesteko orduan, batu den modura abestea aholkatzen dugu, zeren eta musika hala egiteko moldatua baitago; bestela, aldaera fonologikoak eta abar, ez lirateke bat etorriko jatorrizko musikarekin. Euskara landuan ematearena, lexikoa gaurko grafiara ekartzeko eta irakasleen lana errazteko ahalegina izan da.

Beharrezkoa ikusi dugun kasuetan, lexikoa azaldu dugu. Euskalkiz euskalki hitz desberdinak erabiltzen dira, eta horrek behartu egin gaitu esanahia argitzera. Horietan, orrialdearen beheko partean daude argibideak. Batzuetan ez da erraza izan materiala modu literarioan aurkeztea eta hori dela eta, berba batzuek galdera ikurra daramate. Horrekin, esanahi hori izan daitekeela adierazten da, baina ez ziurtasun osoz.

Liburu honekin batera ikus-entzunezko materiala prestatu dugu. Material hori grabatzeko, ezinbestekoa izan da Mungiako Bentades Ikastetxeko zuzendari, irakasle, ikasle eta gurasoen laguntza. Ezin dugu aipatu gabe utzi, era berean, baserri eta parkeetan laguntzeko prest egon diren gurasoen eta aitona-amonen aldez aurretiko jarrera atsegina. Halan eta gutiz ere, DVDan ez dira egoera guztiak grabatu; adibidez, lo kanta bat

besterik ez dugu sartu amaitzeko. Dena den, DVDa lagungarria besterik ez da, kantuen doinua edota egoera nola antzeztu behar den argitzeko bidea.

Umeen munduari buruz hitz egiten dugunean, umeen hitz egiteko modu bitxia aipatu behar dugu. Liburuxka honen amaieran, umeen hizkera argitzeko hiztegitxoa aurkituko duzu, irakasleentzat berba horiek ezagunak egin daitezen. Hiztegitxoa ulertzeko, adibide bat jarriko dugu:



Lan honek, besteak beste, helburu hauek ditu:

– Gure ahozko ondarea berreskuratzea: gure nagusiek orain arte eskaini diguten transmisioaren jarraipenari eusteko.
– Tokian tokiko lexiko ezezaguna argitzea: hain ezagunak ez diren hitzen esanahia azaltzen da.
– Haur Hezkuntzan diharduten irakasleen jakin-mina sortzea eta asetzea.
– Irakasleek ikasleei informazioa helaraztea.

Oraingo honetan, irakasle eta gurasook, zuen esku dago hemen aurkezten den informazio aberasgarri hau ikasleei eta seme-alabei modu egokian irakastea.

Mixeri eta Mau

Asko eta asko dira Euskal Herriko ondarean ume txikiekin jolasteko dauden kantak eta errezitatuak, baina gutxi batzuk baino ez dira ezagunak gure umeen eta nagusien artean. Umea jolasen artean hazten da, jolasa behar du jaio denetik, haren bitartez heziketa fisikoa, intelektuala, soziala eta afektiboa lantzen baititu. Umeak jolasa berezkoa du, eta denbora-pasagarria baino askoz gehiago da. Umeen eta gurasoen arteko harremana jolasen bitartez sendotzen da; laztantxoak, keinuak, zabuka ibiltzekoak... umea entretenitzeko baino gehiagorako dira, dudarik gabe.

Gauza jakina da ohiko jolasak krisian daudela. Horretarako, hainbat arrazoi egon daitezke, baina aipagarrienak jolasteko tokiak gutxiagotzen joan direla, eta telebistaren eragin zuzena izan daitezke. Lehen, bizimodua eta lana ere etxearen inguruan egiten zen. Orduan, haurrak nagusiekin denbora gehiago ematen zuen. Eskolan beste zeregin batzuk betetzen ziren; idazten eta irakurtzen ikasi, besteak beste. Gaur egun, bizimodua erabat aldatu da, eta horrek ere ohiko jolasaren krisia dakar. Orain, eskolan landu beharreko arloa dugu hau, dudarik gabe, bertan aberastu behar delako umearen heziketa kulturala.

Kili-kili egiteko

Ume txikitxoek barre galantak egiten dituzte amak edo nagusi batek kili-kili egiten dienean. Kili-kili egin ahala esaten zaion errezitatua dugu hau.

Zilar baba

Zilar baba,	*Zilar baba,*
zilar baba.	*zilar baba.*
So egizü[1] txori ttipia[2]	*Soizü txori ttipia*
Kili! kili!	*Kili! kili!*

Altzai (Ip)

Kukuka ibiltzeko

Nagusiak bere aurpegia ezkutatzen du eskuekin edo zapi batekin, *kuku* esaten duen bitartean.

Badago errezitatu hauekin jolasteko beste modu bat ere: amak-edo, umea hartzen du besoetan, eta beste pertsona batek amaren lepotik agertzen du burua hurrengo hitz hauek esaten dizkion bitartean. Umeari barrea eragingo dio, bere burua ezkutatu eta agertu dabilenaren bila.

Kuku miku

Kuku miku. Santaliku.	*Kuku miku. Santaliku.*
Txoriak umeak egin ditu.	*Xoriak umiak egin ditu.*
Non?	*Non?*
Haritzaren adarrean.	*Aritzaren adarrian.*
Kaka gure mutikoaren bizkarrean.	*Kaka gure mutikoaren bizkarrian.*

Sara (Ip)

---

[1] So egin: mirar.

[2] Ttipi: pequeño –ña.

Paparra eta pipirri

Paparra eta pipirri
apoak[3] begi gorri:
ni ez naiz honetan erori;
zuk behar duzu kuku jarri.

Paparra eta pipirri
aphoak begi gorri:
ni ez niz huntan erori;
zuk behar duzu kuku jarri.

Lapurdi (Ip)

Jateko orduan esateko

Umetxo batzuk nahiko mizkinak izaten dira jateko orduan. Amak komeriak egin behar izaten ditu umeari janarazteko eta entretenitzeko. Horretarako ditugu errezitatu eta abesti hauek.

Txitxi tela

Txitxi[4] tela,
papa[5] tela...
Bihar dela Bazko,
etzi txingar moko[6],
arrautza eta kosko[7].

Txitxi tela,
papa tela...
Bihar dela Bazko,
etzi xinger moko,
arroltze ta koxko.

---

[3] Apo: sapo.
[4] Txitxi: carne.
[5] Papa: pan.
[6] Txingar moko: una punta de tocino.
[7] Kosko: cáscara dura.

Nik azala,	*Nik axala,*
hik mamia,	*ik mamie,*
krik! ahorako.	*krik! agorako.*

Aniz (Baztan-N)

Pinpin txoria

Pinpin txoria,	*Pinpin xoria,*
txori papogorria.	*xori papo gorria.*
Jan, jan, koinata[8],	*jan, jan, koinata,*
txori saltsa on bat da.	*xori salsa on bat da.*

Sara (Ip)



Lehenengo pausoak ematean erabiltzeko

Umea hazten doa, eta apurka-apurka oinez ere ikasi du. Umea etzanda dagoela, bi hankak orkatiletatik oratu, eta bata gora eta bestea behera mugiarazi ahala, *Hau sankoa* eta *Xango-mango* errezitatuak botako dira. Azkeneko berbak esatean, hankak bata bestearen kontra jotzen dira.

Hau sankoa

Hau sankoa[9],	*Hau sankoa,*
hau biloa[10].	*hau biloa.*
Hori betor	*Hori betor*
eta hori bihoa.	*eta hori bioa.*
Pio-pio-pio,	*Pio-pio-pio,*
pulu-pulu-pulu.	*pulu-pulu-pulu.*

Zeberio (B)

---

[8] Koinata: confitada.
[9] Sanko: pierna.
[10] Bilo: pelo.

Xango-mango

—Xango-mango
haurra nongo?
—Ona bada, etxerako;
gaiztoa bada, kanporako.

—Xango-mango
aurra nongo?
—Ona ba-da etxerako;
gaixtua ba-da kanporako.

Oiartzun (G)



Umea oinez doanean bi pertsonak oratuko dute besapeetatik, eta *hupala biruleta* hitzak abestean, gorantz altxatuko dute hegan egiten balego legez.

Kattalin, pertolin, zakuto

Kattalin, pertolin, zakuto,
piperrik badaukan saltzeko?
Hupala biruleta! Maria;
hupala biruleta!

Kattalin, pertolin, zakuto,
biperrik badaukan saltzeko?
Hupala biruleta! Maria;
hupala biruleta!

Sara (Ip)



Umetxoak, dagoeneko, ikasi du oinez. Lehenengo pausoak inolako laguntzarik gabe ematean, kantatxo hauek abesten zaizkio.

Txiri-txiri

Txiri-txiri[11]	*Txiri-txiri*
oine-oine,	*oñe-oñe,*
ama legez,	*ama leges,*
aita legez,	*aite leges,*
amama legez,	*amama leges,*
aitita legez,	*aititta leges,*
txiri-txiri,	*txiri-txiri,*
oine-oine.	*oñe-oñe.*

Zeanuri (B)



Bera dago

Bera dago,	*Bera dago,*
bakarrik dago;	*bakarrik dago;*
bera dago,	*bera dago,*
bakar-bakarrik dago.	*bakar-bakarrik dago.*

Oiartzun (G)



[11] Txiri-txiri: con movimiento suave, imperceptiblemente.

Laztantxoak egiteko

Umeak errenkadan daudela, bakoitzari laztantxo bat egiten zaio burutxoan. Kanta amaitzean, dagokion umeari atzamar-txokoekin[12] kolpetxo maitagarriak ematen zaizkio.

Hau berez

Hau berez[13];	*Au berex;*
hau berez;	*au berex;*
hau berez...	*au berex...*
Hau kux-kux	*Au kux-kux*
kux-kux...	*kux-kux...*

Oiartzun (G)



Umearen urtebetetze eguna heldu da, eta horretarako ere errezitatu aproposa dago gure herri literaturak eskaintzen digun ondarean. *Hiru urtetako* dioen lekuan, ume bakoitzari dagokion adina esan behar zaio, eta belarrietatik tiratu.

Ahuntzak bilgorra non du?

—Ahuntzak bilgorra[14] non du?	*—Auntzak bilkorra non du?*
—Aki[15], belarri ondoan.	*—Aki, beharri ondoan.*
—Zenbat urtetako?	*—Zenbat urtetako?*
—Hiru urtetako.	*—Iru urtetako.*

Lekaroz (N)

---

[12] Atzamar-txoko: nudillo, articulación de la mano.
[13] Berez: aparte.
[14] Bilgor: sebo, grasa.
[15] Aki: aquí.

Modu berean, umearen belarriarekin jolasten da, baina zoriondu barik.

Ahuntzak non du bilgorra?

—Ahuntzak non du bilgorra?	*—Auntzak non du bilkorra?*
—Aki, belarri ondoan.	*—Aki, beharri ondoan.*
—Hiretzako zer?	*—Iretako zer?*
—Ogia eta txingarra[16].	*—Ogi eta xinger.*
—Bertze horrendako?	*—Bertze horrendako?*
—Gaitzibel[17] puska bat.	*—Gaitzibel puzkat.*

Nafarroa

Osasun arazoak arintzeko

Umeak, dudarik gabe, hainbat bider hartuko du min. Min hori arintzeko, amak txistu apur bat ipiniko du umearen zauriaren gainean, eta hau esango dio.

Senda-senda mediku

Senda-senda mediku,	*Senda senda, miriku*
oilo kaka, ziriku[18].	*oilo kaka, xiriku.*
Amen, zu hor eta ni hemen.	*Amen, zu hor eta ni hemen.*

Lapurdi (Ip)

Gauza jakina da umetxoek min egiten dutenean gustura eramaten dutela behar baino trapu handiagoa. Hori adierazteko, errefrau hau dugu ezaguna.

---

16 Txingar: tocino.
17 Gaitzibel: grasa?
18 Ziriku: seda.

Lau ziriren pupua

Lau ziriren pupua
eta zortzi marairen[19] trapua.

Lauzirien pupue
eta zortzi mar(a)ien trapue.

Zeanuri (B)

Umeak hanka baten min hartzen badu, nagusi biren artean, euren eskumuturrak lotuz, aulki batean balego legez hartuko dute.

Kadiran ttotto

Kadiran[20] ttotto[21],
kadiran xilo[22],
eria dago
gaixo pottolo!

Kaderan ttotto,
kaderan xilo,
eria dago
gaizo pottolo!

Donibane Garazi (Ip)

[19] Marai: maravedí.
[20] Kadira: silla, sillón.
[21] Ttotto: niño.
[22] Xilo: orificio, agujero; abertura.

Nagusiak umeak duen kirkilaren[23] bat-edo kendu nahi badu, pauso hauek jarraitu beharko ditu: lehenengo, paper baten barruan hiru arto garau eta zentimo bat batu behar ditu. Papera eskuineko eskuan hartuko du eta min daukan lekuan ipiniko dio. Ezkerreko eskuaz burua ukituko dio. Ia-ia arnasa hartu barik, errezitatuak dioena esango zaio. Amaituta, papera eta barrukoak sutan erreko dira, eta horrela kirkila desagertu egingo da, besteekin batera sutan erre egin balitz bezala.

Kirkilak bat eta kirkilak bi

Kirkilak bat eta kirkilak bi	*Kirkillak bat eta kirkillak bi*
kirkilak ditu hamabi;	*kirkillak ditu amabi;*
hamabitik hamaikara	*amabitik amaikara*
hamaikatik hamarrera	*amaikatik amarrera*
hamarretik bederatzira	*amarretik bedratzira*
bederatzitik zortzira	*bedratzitik zortzira*
zortzitik zazpira	*zortzitik saspira*
zazpitik seira	*saspitik seira*
seitik bostera	*seitik bostera*
bostetik laura	*bostetik laura*
lautik hirura	*lautik irura*
hirutik bira	*irutik bira*
bitik batera	*bitik batera*
batetik bapez	*batetik bapez*
kirkilik bapez.	*kirkillik bapez.*

Ondarroa (B)

Umeak zotina badu, edozein gauza hiru bider mugitu behar da alde batetik bestera, berriro zotina egin baino lehen. Bien bitartean, *Jesus, Ama Birjina* esan behar da.

---

[23] Kirkil: escrófula, enflamación de los ganglios del cuello.

Jesus, Ama Birjina

Jesus, Ama Birjina,	*Jesus, Ama Birjina,*
ongi etorri txopina[24];	*ongi etorri txopina;*
bart etorri bazina,	*bart etorri bazina,*
ongi afaldurik joan zina.	*ongi afaldurik fain zina.*

Aezkoa (N)

Begian zerbait sartzen zaionean erabiliko dugu *Begia barrura* errezitatua. Betazalak igurtzi ahala, hiru bider errepikatuko dugu.

Begia barrura

Begia barrura,	*Begia barrura*
zamarra[25] kanpora,	*zamarra kanpora*
Andra Mari lagun.	*Andra Mari lagun.*

Usuaran (G)

Oihuka dabilenean esateko

Ume bat oihuka badago, hauxe esaten zaio isil dadin.

Xo!

Xo![26] Oiloak pixa egin arte.	*Xo! Oiloak pixa in artio.*

Baztan (N)

Baratzean dagoenean erabiltzeko

Kakalardoa hegaz ikustean, lurrera eror dadin kantatzen zaio abestia.

---

[24] Txopin: hipo.
[25] Zamar: nube de ojo, brizna, mota.
[26] Xo: ¡silencio!, ¡chitón!

Kukulumera

Kukulumera	*Kukulumera,*
behera, behera!	*bera bera!*
Kukulumera	*Kukulumera,*
behera, behera!	*bera bera!*

Barakaldo (B)

Marigorringoa ikusiz gero, honako hitzok esan behar zaizkio. Amaitzean, putz egin behar zaio hegan joan dadin.

Mariana gorri

Mariana gorri	*Mariana gorri*
aita akuluarekin[27]	*ata akuluakin*
ama zarbaztarekin[28]...	*ama zarbaztakin...*
Korri-korri...	*Korri-korri...*

Oiartzun (G)

Barraskiloak adarrak atera ditzan esan beharrekoa dugu hurrengoa.

Adarrak atera

Adarrak atera;	*Adarrak atera;*
bestela putzu handira.	*bestela putzu aundira.*
Adarrak atera,	*Adarrak atera*
bestela putzu handira.	*bestela putzu aundira.*

Lekaroz (N)

Gurasoek baratzeko beharrak egiteko umea bazter batean uzten dute. Umea jolasten hasten da belarrak gorantz botatzen. Orduan, hitz hauek esaten zaizkio.

---

[27] Akulu: aguijada, aguijón, pincho.
[28] Zarbazta: támara, residuos de leña delgada.

Txintxin belarra

Txintxin belarra,	*Txintxin belarra,*
aza[29] belarra.	*asa belarra,*
Hau zeinentzat?	*au zeñentzat*
Hurrengo dagoanarentzat.	*urrengo dauentzat.*

Mutriku (G)

Gauza bat aurkitzen duenerako

Umeren batek zerbait galtzean edo norbaitek hori aurkitzean, esaldi hau bost aldiz errepikatu behar da. Hitzok esaten diren bitartean jabea agertzen ez bada, aurkitu duenarentzat izango da.

Gauza bat bilatu dut

Gauza bat bilatu dut,	*Gauza bat bilatu det,*
bost aldiz esango dut.	*bost aldiz esango det,*
Jaberik azaltzen ez bada,	*jaberik azaltzen ez bada*
niretzat gordeko dut.	*neretzat gordeko det.*

Gipuzkoa

Bilin-balaunka

Nagusi batek umea hanka bietatik hartzen du, eta kulunkatuz, berba hauek esaten ditu. Galdera egitean, umeak *San Pedro* esaten badu, zutik geratuko da, baina *San Pablo* aukeratzen badu, lur gainean etzanda utziko du.

[29] Aza: berza, col.

Dinbili-danba

Dinbili-danba[30]	*Dinbili, danba*
Zer uria?	*Zer uria?*
Elizaren bijilia.	*Elizaren bigelia*
—San Pedro? San Pablo?	*—San Pedro? San Pablo?*

Elorriaga (G)

Batek besoetatik oratuko du umea, besteak hanketatik, eta abesten daudela, kulunkatu egingo dute.

Txilin-txilin bonba

Txilin-txilin[31] bonba	*Txilin txilin bonba*
serorea[32] non da?	*serorea non da?*
Kanpaiak jotzen.	*Kanpaiak yotzen.*
Aita dolorez,	*Aita dolorez,*
ama negarrez,	*ama negarrez*
umeak zuloan eta	*umeak txuloan da*
abadeak kantuan.	*abadeak kantuan.*

Gipuzkoa

---

[30] Dinbili-danba: onomatopeya para indicar el movimiento pendular (de las campanas, columpios, martilleo, etc)

[31] Txilin: tañido de la campanilla.

[32] Serora: sacristana, mujer del sacristán.

Din-dan, nor hil da?

—Din-dan, nor hil da.
—Peru zapataria.
—Zer egin dau pekatu?
—Lartako morua puskatu,
txisilupean[33] beratu[34],
arropa ganean siketu
besteak eleizatik diran artean
Peru jango dogu koipetsu.

—Din-dan, nor il dde?
—Peru zapatarijje.
—Zer ein ddeu pekatu?
—Lartako morua puskatu,
txitxillopien beratu
arropa ganien siketu
bestiek eleizatik diren artien
Peru jangu koipetsu.

Murueta (B)



Umea nagusi biren artean hartuko dute. Horretarako, nagusiek euren eskumuturrak lotuko dituzte eta aulki bat izango balitz legez eseriko dute umea, kantatzen duten bitartean kulunkatuz.

---

[33] Txisilu: ik. zizeilu: banco (de respaldo alto en las cocinas vascas).
[34] Beratu: ablandar(se) (en sentido propio y figurado); poner(se) a remojo.

Arre burrikito

Arre burrikito
ixo Likanda,[35]
Biturian dagoz
hiru oilanda[36]:
bata da koxoa,
bestea bere halangoa,
hirugarrena bere
kasta malditoa[37].

Arre burriquito,
ixo likanda,
Biturien dagoz
iru ollanda:
bata da koxoa,
bestea bere alangoa,
irugarrena bere
kasta malditoa.

Bizkaia



Nagusiak umetxoa hartzen du altzoan berari adi. Eskuetatik oratu, eta atzera eta aurrera eramango du, zerrotea balitz bezala, errezitatzen duen bitartean.

---

[35] Likanda: Lekanda?
[36] Oilanda: (Zool) polla.
[37] Kasta maldito: casta maldita.

Sirrin-sarran

Sirrin-sarran	*Sirrin-sarran*
domini pan,	*domini pan,*
zure semea errotan,	*zure semia errotan,*
errota txiki,	*errota txiki,*
errota handi,	*errota aundi,*
eragin deutso,	*eragin deutso,*
pin-pan.	*pin-pan.*

Durango (B)

Umea beso artean kulunkatzen da, eta abestia amaitzean gorantz botatzen da, jaustean besoetan hartzeko.

Brin-bran boleran

Brin-bran boleran	*Brin-bran boleran*
elizako kanberan[38],	*elizako kanberan,*
sei edo zazpi gizon,	*sei edo zazpi gizon,*
eta denak koleran.	*eta denak koleran.*

Gipuzkoa



[38] Kanbera: cámara.

Kisketean

Kisketean[39] egiteko da hurrengoa, eta letrak dioena egin behar da. Lehenengo hanka nekatzen denean, bestera aldatu beharko da, eta abestia nekatu arte errepikatuko da.

Kadera baten ganean

Kadera baten ganean txotxo[40]
kadera baten ganean.
Ia bat hori kantsau da eta,
bestera jira gaitezan.

Kadera baten gañian txotxo
kadera baten gañian.
Ia bat ori kantsau da eta
bestera jira gaitian.

Zaldibar (B)



[39] Kisketean: (andar) sobre un pie; (jugar) a la pata coja.
[40] Txotxo: palabra con que se llama a los niños y muchachos en general.

Ezkutaketan

Leku itxietarako jolasa dugu hurrengoa. Umeak nagusiaren hankartean sartzen du burua. Nagusiak berba hauek esaten dituen artean, kolpetxoak ematen dizkio bizkarrean. Bitartean, bere lagunek ezkutatzeko aprobetxatuko dute. Kantua amaitzean lagun bat topatu beharko du. Nagusia zenbatzen hasiko da astiro-astiro: bat, bi, hiru.... hogei esan baino lehen lagunen bat aurkitzen badu, eskutik oratuta[41] eramango du nagusia dagoen lekura, eta bera izango da betetzailea[42] hurrengo txandan.

Kalabuxin-kalabuxin

Kalabuxin-kalabuxin,	*Kalabuxin kalabuxin,*
zapatero atxingo bat,	*zapatero atxingo bat,*
hamargarrena no pegar,	*amargarrena no pegar,*
zein dan badakizu,	*zein da badakixu,*
hartu lepoan eta ekarzu.	*artu lepuan da ekarrixu.*

Ondarroa (B)

Berbetan

Umeak harea pilo gogortuetan, kare pilatuetan edota eskaileretan egongo dira zutik. Beheko partean bat egongo da, eta beste guztiak goiko aldean. Behekoa hasiko da abesten, eta goiko parteko batek erantzungo dio. *Zuri ta gorri eta kikirriki!* denen artean esango dute.

---

41 Oratu: agarrar.

42 Betetzaile: el que se la queda; ejecutante.

Maria goikoa

—Maria goikoa.
—Zer duzu, behekoa?
—(Z)atoz iturrira.
—Baina ezin etorri.
—Zer duzu, ba?
—Senarra etorri.
—Zer ekarri?
—Zapata galtzerdi.
—Ze kolore?
—Zuri eta gorri eta kikirriki!
—Zuri eta gorri eta kikirriki!

—Maria goikoa.
—Zer dezu, bekoa?
—Atoz iturrira.
—Baina ezin etorri
—Zer dezu ba?
—Senarra etorri.
—Zer ekarri?
—Zapata galtzerdi.
—Ze kolore?
—Zuri ta gorri ta kikirriki!
—Zuri ta gorri ta kikirriki!

Elgoibar (G)

Orduan behekoak galdetzen du:

—Nondik egingo duzu?

Eta goikoak:

—Hemendik!

Eta goiko partean dauden umeak eskaileretatik gora eta behera hasiko dira ezkerretara edo eskuinetara. Behean dagoen umea atzetik joango da, eta horrela jarraituko dute nekatu arte, atzetik doanak inoiz aurrea hartu gabe.



Korroan egiteko

Elkarri eskuak emanda jirabiraka hasiko dira abesten duten bitartean.

Txiribiri

Txiribiri[43] atean,
basamortu batean,
jarri belauniko,
adora Jesu Kristo.
—Gure ortuan[44] zein dabil,
azaburuak ostutzen?
Aitatxo, amatxo,
urra-urra pitxitxo.
Aitatxo, amatxo,
urra-urra pitxitxo.

Txiribiri atean,
basamortu batean,
Yarri belauniko,
adora Jesukristo.
—Gure ortuan zein dabil,
azaburuak ostutzen?
Aitatxo, amatxo,
urra urra pitxitxo.
Aitatxo, amatxo,
urra urra pitxitxo.

Gipuzkoa



[43] Txiribiri: mariposa.
[44] Ortu: huerto.

Umeak korroan hasiko dira abesten duten bitartean. *Petratxu* dioen lekuan, jolasten ari diren umeen izenak esango dira banan-banan. Izena esatean, biratu egingo da, eta eskuak berriro elkarri emanda, jolasean jarraituko dute, partaide guztiak buelta emanda egon arte.

Bira-bira monte

Bira-bira monte zozo balkate
Ibarrangeluan alkate,
Bilbon errejidore,
gure auzoko *Petratxu* bere
atzera bira leiteke.

Bira bira monte zozo balkate
Ibarrangeluan alkate,
Bilbon errejidore,
gure auzoko Petratxu bere
atzera bira leiteke.

Bizkaia



Honetan, umeak korroan daudela, *jarri belauniko* dioen lekuan, horixe bera egingo dute, hau da, belauniko jarri, eta *adora Jesu Kristo* dioen lekuan, musulmanek egiten duten errereberentzia egiten hasiko dira.

Hiru Errege Magoak

Hiru Errege Magoak	*Iru errege Magoak*
hain bide luzean,	*ain bide luzean,*
zeruan musikea,	*zeruan musikea,*
munduan tronpetea	*munduan tronpetea*
andra Kosepa tronpeta joten	*andra Kosepa tronpeta yoten,*
Kriston erreberentzia,	*Kriston erreberentzia,*
jarri belauniko, adora Jesu Kristo.	*yarri belauniko, adora Jesukristo*
Gure zelaian nor dabil?	*Gure zelaian nor dabil?*
Azaburuak loratzen.	*Azaburuak loratzen.*
Aitatxu, amatxu, urra-urra pitxitxu.	*Aitatxu, amatxu, urra urra pitxitxu.*

Lekeitio (B)



Haur Hezkuntzako nagusitxoekin egiteko jolasa da hurrengo hau. Umeak eskuetatik helduta daude korroan. Bi ume aukeratuko dira. Bata sagua izango da, eta bestea katua. Sagua korrotik kanpora egongo da, eta katua, ordea, korro barruan.

Katua eta sagua

Sagu txiki, sagu maite,
zulotxoan egon zaitez.
Katuak ikusten bazaitu,
kris-kras jan egingo zaitu.

Xagu txiki xagu maite,
zulotxoan egon zaitez.
Katuk ikusten bazaitu,
kris-kras jan egingo zaitu.

Zerain (G)



Kantua amaituta, elkarrizketa sortzen da katuaren eta saguaren artean.

—Ez nau jango!
—Jango zaitut!
—Ez nau jango!
—Jango zaitut!
—Ez nau jango!
—Jango zaitut!

Hau amaitzean, korroa gelditu egiten da, eta besoak gorantz jasoko dituzte. Sagua korrika hasten da korro barrura eta kanpora, besoen azpitik. Katuak harrapatu egin beharko du irabazteko, baina beti jarraitu beharko du saguak egiten duen

bidea. Hala ez bada, galdu egingo du. Saguak korroari hiru buelta ematen badizkio, irabazi egingo du, eta katuak berriro bete beharko du bere lekua.

Nagusitxoekin jolasteko kanta dugu oraingoa. Umeak korroan esertzen dira lurrean. Bat bueltaka hasiko da, eskuan zapi zuria daukala. Bueltak ematen dituen bitartean, korrokoek abestu egingo dute, eta bueltaka dabilenak eserita dagoen umeren baten atzean utziko du zapia. Aukeratua konturatzean, galapan[45] hasiko da haren atzetik, zapia eskuan hartuta. Berak libre utzi duen lekura heldu baino lehenago jotzen badu zapiaz, berriro eseriko da bere lekuan, baina jotzen ez badu, aukeratua hasiko da berriro bueltaka hurrengo txandan, betetzaile lana egiten.

[45] Galapan: rápidamente; al galope.

Zapi zuria atzetik

Zapi zuri honekin
jolasten gara.
Orain alde batera
gero bestera.
Zapi zuria aurrean!
Zapi zuria atzean!
Zapi zuri honekin
jolasten gara.

Zapi zuri onekin
jolasten gera.
Orain alde batera
gero bestera.
Zapi zuri aurrean!
Zapi zuri atzean!
Zapi zuri onekin
jolasten gera.

Zerain (G)



Hatzekin jolasteko

Umeek pozarren entzuten dituzte hatzekin jolastuz esaten direnak. Hemen hainbat erakusten dira umeek ondo pasa dezaten.

Umeak eskuak gora adi ipiniko ditu, eta amak atzamarrak ukituko dizkio banan-banan: lehenengo eta hirugarren arteko lerroko berbak erpurutik[46] hasi eta nagiraino[47] esango dira, eta laugarrenekoak atxikinetik[48] erpururaino. Era honetako esaera hau hatz berean hasi eta amaitzen da.

Atia-pitia

Atia-pitia[49] kolario,	*Aitiya, Pitiya, Kollariyo*
gure seintxoa Bikario.	*gure seintxua Bikariyo.*
Aitari eta amari ura ekarri	*Aitari t'amari ura ekarri*
eleizako ateetaraino.	*eleizako atieta...ri...no.*

Mundaka (B)

Hurrengo, arrautzaren errezitatu ezaguna datorkigu. Atzamar txikitik hasita, nagusiak hauetarikoak esango dizkio umeari. Errezitatua amaitzean umeari esku-ahurrean[50] kili-kili egiten zaio.

Honek arrautza ekarri

Honek arrautza ekarri du,	*Onek arrautza ekarri du,*
honek sutan ipini du,	*onek sutan ipiñi du,*
honek probatu egin du,	*onek probatu egin du,*
honek gatza eman dio,	*onek gatza eman dio,*
eta potxolo txiki honek	*eta potxolo txiki-onek...*
dan-dana jan du.	*dan-dana jan du.*

Elosua (G)

---

[46] Erpuru: dedo pulgar.

[47] Nagi: dedo anular.

[48] Atxikin: dedo meñique.

[49] Atia-pitia: atxea-motxea: juego infantil en el que un adulto toca los dedos del niño mientras le canta.

[50] Esku-ahur: palma de la mano.

Atzamarrak banan-banan ukitu behar zaizkio umeari abesten den bitartean. Abestia amaitzean ukitzen den atzamarraren jabeari hau galdetzen zaio: *kosk ala pipita? Kosk* erantzuten badu, haginkadatxo bat ematen zaio hatzean, eta *pipita* badio, piltxikadatxoa[51].

Pinpin serapin

Pinpin serapin,	*Pinpin serapin,*
kutxilo eta maratxin,	*kutxilo ta maratxin,*
ttutturruttu ttena,	*ttutturruttu ttena,*
xabin xabin koxk,	*xabin xabin koxk,*
aitona kaskamotz,	*aittona kaxka motx,*
pipa motz.	*pipa motx.*
Kosk ala pipita?	*Koxk ala pipita?*

Arrona (G)

Abesti honekin hurrengo jolas hauek egin ditzakegu:

– Eskua gora adi ipiniko du umeak, eta errezitatu hau amaitzean, kendu egin beharko du. Nagusiak hatz erakuslearekin[52] ukituko ditu umearen atzamarrak, eta era berean abesti hau botako du. Ezin dira atzamarrak kendu azkeneko bertsoko hitza esan arte. *Bat* esatean, ahora eraman beharko du umeak bere atzamartxoa. Horrela ez bada, "jan" egingo dio atzamarra nagusiak.
– Umeak korroan daude, eta eskuak luzatzen dituzte. Ume bat erdian jarriko da, eta errezitatua esaten duen bitartean, bere lagunen atzamarrak seinalatuko ditu. Amaitzean, ukitzen duen atzamarra gorde egin beharko da. Jolasa atzamar bakarra luzatuta geratzen denean amaitzen da, eta hatz horren jabea izango da galtzailea.

---

[51] Piltxikada: pellizco.
[52] Hatz erakusle: dedo índice.

Atxea-motxea

Atxea-motxea[53]	*Atxea-motxea*
koroli pan	*koroli pan*
zure semea errotan	*zure semea errotan*
errota txikia dabilenean	*errota txikia dabillinian*
klin-klan.	*klin-klan.*
Joan nintzan basora	*Joan nintzen basora*
topau neban erbi bat	*topau neban erbi bat*
jaurti neutsan harri bat	*jaurti neutzen arri bat*
atera neutsan begi bat.	*atera neutzen begi bat.*
Zelemina[54] kanpan,	*zelemiñe kanpan,*
zelemina kanpan,	*zelemiñe kanpan,*
gari-buru txiki bat.	*gari-buru txiki bat.*

Durango (B)

Hau eta hau ezkondu eta *Honek eta honek* parekoak dira jolasteko orduan. Esku-txokoak zenbatzeko dira. Norberaren eskuak ukabildu, edo umeari bereak ukabilarazi, eta agerian dauden esku-txokoak[55] zenbatzen hasten da, hurbilen duenetik hasita.

Hau eta hau ezkondu

Hau eta hau ezkondu,	*Au eta au ezkondu.*
hau eta hori konbidadu,	*Au eta ori konbidadu.*
honek eta harek esan dabela	*Onek et'arek esan dabela*
ez dala eta hau eta bai dala eta hau.	*eztala (t')au bai dala (t'au).*
Hemen ez badagoz hogeita lau,	*Emen ezpa'dagoz ogetalau,*
Pantxikuari kokota[56] pikau.	*Pantxikuari kokota pikau.*

Mundaka (B)

---

[53] Atxea-motxea: juego infantil en la que un adulto toca a un niño los dedos de su mano mientras le canta.

[54] Zelemin: Medida de capacidad para áridos, que tiene 4 cuartillos y equivale en Castilla a 4,625 l. aproximadamente.

[55] Esku-txoko: nudillo, articulación de la mano.

[56] Kokot: cogote, pescuezo.

Honek eta honek

Honek eta honek	*Onek eta onek*
eta honek eta honek	*eta onek eta onek*
bart ezteiak zituzten.	*bart eztayak zituzten.*
Honek honi zer esan?	*Onek oni zer esan?*
Gonbida zitzala hau eta hau;	*Konbida zitzala au ta au;*
Gonbidatzaileak hau eta hau;	*konbidatzaileak au ta au;*
hauexek dira hogeita lau.	*abetxek dirade ogeita lau.*

Segura (G)

Hatz txikitik hasita bakoitzaren izena botako du umeak, ukitzen duen bitartean.

Eritxikina

Eritxikina[57],	*Eritxikine*
eremutina[58],	*eremutine*
elanparo[59],	*elanparo*
elanpolito[60],	*elanpolitos*
txorrimanua[61].	*txorrimanue.*

Eugi (N)

Esku bateko bost hatzak ukituz esaten dute haurrek hurrengo hau. Esan ondoren, laguntxo baten besoa oratu eta *ilar-baba, ilar-baba, ilar-baba* esan, eta *krikrikrikri* kilikatzen dute.

---

[57] Eritxikin: dedo meñique.
[58] Eremutin: dedo anular.
[59] Elanparo: dedo corazón.
[60] Elanpolito: dedo índice.
[61] Txorrimanu: dedo pulgar.

Hau txoritxoa

Hau txoritxoa,	*Hau xorittoa,*
hau birigarrotxoa,	*hau bilegarrottoa,*
hau atzamailetxoa[62],	*hau atzamailettoa*
hau prestatzailetxoa[63],	*hau pestatzailettoa*
eta hau krikazaletxoa[64].	*eta hau krikazalettoa.*

BN-L-S

Haurrak eskuak mahai gainean ipiniko ditu, hatzen artean bitarteak utzita. Nagusiren bat bakoitzean hatz bat ukitzen edo hartzen hasiko zaio haurrari, abestiaren letra abesten edo errezitatzen dion bitartean. Umeak adi egon beharko du, *hamar mar-mar* entzutean, nagusiak atximurka egin, bere bi eskuez haurraren biak jo edo horrelako zerbait egingo dio eta. Haurra adi eta bizkor badabil, eskuak batu edo gorde egingo ditu, eta orduan "zigor" horretatik libre egongo da.

Bat: Matxin Parrat

Bat: Matxin Parrat.	*Bat: Matxin Parrat.*
Bi: Martin Eperdi.	*Bi: Martin Eperdi.*
Hiru: kolkoa bete diru.	*Iru: kolko bete diru.*
Lau: iko melau[65].	*Lau: iko melau.*
Bost: koxkotean koxk.	*Bost: koxkotean koxk.*
Sei: korta bete behi.	*Sei: korta bete bei.*
Zazpi: buru bete bazpi[66].	*Zazpi: buru bete bazpi.*
Zortzi: katilu bete zorri.	*Zortzi: katillu bete zorri.*
Bederatzi: katuaren narrua eratzi[67].	*Bederatzi: katun narrue eratzi.*
Hamar: mar-mar.	*Amar: mar-mar.*

Foru (B)

---

[62] Atzamailetxo: pajarerito.
[63] Prestatzailetxo: prestamerito.
[64] Krikazaletxo: empinadorcito.
[65] Iko melau: higo paso.
[66] Bazpi: liendre, huevo de piojo.
[67] Eratzi: despellejar.



Abesti honetan hatzak aipatzeko animaliak erabiltzen dira. Aurreko abestirako *(Bat Matxin Parrat)* emandako azalpenak honentzat ere balio du.

Zenbat diran hamar diran

Zenbat diran hamar diran
zenbat diran ikusi.
Oiloa kakaritzen da,
oilarrak ari ikasten.
Txakurtxua josten eta
arratoitxua lauretan[68].
Txindurria barriketan,
kakalardoa ametsetan.
Eperra nabo[69],
idia dantzan.
Astoa danbolina jo,
honen erdi-erdian dago
zorria barrez itotzen.

Zenbat diran amar diran,
zenbat diran ikusi.
Olluak kakaritzen da,
ollarrak ari ikasten.
Txakurtxua josten, eta
arratoitxua lauretan.
Txindurria barriketan,
kakalardua ametsetan.
Eperra nabo,
idia dantzan.
Astua danboliña jo
onen erdi erdian dago
zorria barrez itotzen.

Eibar (G)

---

[68] Lauretan: a cuatro patas.
[69] Nabo: durmiendo.



Pertsona helduak umearen eskua hartu, eta hatzak banan-banan erakutsita, bakoitzari ezaugarri edo betebeharren bat agintzen dio. Abestia hatz loditik hasten da.

Lehenengotxu hori

Lehenengotxu hori	*Lenengotxu ori*
punta-behatz hori,	*punta-beatz ori,*
beste guztien aldean	*beste guztien aldean*
trokotza[70] dok hori. (ber)	*trokotza dok ori. (ber)*
Trun lai, trun lai...	*Trun lai, trun lai...*
Bigarrentxu hori	*Bigarrentxu ori*
punta-behatz hori,	*punta-beatz ori,*
beste guztien aldean	*beste guztien aldean*
bizkorra dok hori. (ber)	*bizkorra dok ori.(ber)*
Trun lai, trun lai...	*Trun lai, trun lai...*
Hirugarrentxu hori	*Irugarrentxu ori*
punta-behatz hori,	*punta-beatz ori,*
beste guztien aldean	*beste guztien aldean*
luzea dok hori. (ber)	*luzea dok ori. (ber)*
Trun lai, trun lai...	*Trun lai, trun lai...*
Laugarrentxu hori	*Laugarrentxu ori*
punta-behatz hori,	*punta-beatz ori,*
beste guztien aldean	*beste guztien aldean*
lerdoa dok hori. (ber)	*lerdoa dok ori. (ber)*
Trun lai, trun lai...	*Trun lai, trun lai...*

[70] Trokotz: torpe.

Bosgarrentxu hori	*Bostkarrentxu ori*
punta-behatz hori,	*punta-beatz ori,*
beste guztien aldean	*beste guztien aldean*
txatxarra[71] dok hori. (ber)	*txatxarra dok ori. (ber)*
Trun lai, trun lai...	*Trun lai, trun lai...*

Bolibar (B)



[71] Txatxar: baladí, insignificante.

Eskuekin jolasteko

Umeak eskuen mugimendua begiratuz entretenitzen dira. Nagusiaren eskuak eraginez, adi-adi geratuko dira mugimendua jarraituz, jaio berriak direnean, eta eurek hartuko dute parte eskuak eraginez, handitxoagoak direnean. Horretarako ditugu honako kantu hauek.

Ezkerreko eta eskuineko eskuak erakusteko kantua da hau. Mugitu egin behar dira eskuak umearen begien aurrean abesten den bitartean ikus ditzan.

Eragiozu eskutxoari

Eragiozu eskuttoari
eskutto ttiki poliñoari,
lehenik batari,
gero bertzeari;
eskutto ttiki poliñoari[72].

Eragiozu eskuttoari,
Eskutto ttiki poliñoari,
lenik batari,
gero bertzeari;
eskutto tiki poliñoari.

Ziburu (L)

[72] Poliño: bonito -ta.



Mox-mox katutxo

Mox-mox katutxo
—Noiz haiz heltzeko
haur edertxo honekin jostatzeko[73]?
—Erpe zorroztxo[74] horiek hiretzako
gorde itzak haurrak negar ez egiteko.

Mox mox katuko
—Noiz aiz eltzeko
aur ederko (y) onekin yostatzeko?
—Erpe zorroxko oiek eretzako
gorde itzak aurrak negar ez eiteko.

Astigarraga (G)



Umea altzoan hartu, eskuetatik heldu, eta errezitatua esaten den bitartean, umearen aurpegitxoan laztantxoak egingo dira.

---

[73] Jostatu: divertir(se), entretener(se), recrear(se).
[74] Erpe zorrotz: garras afiladas.

Katarra mixon

—Katarra mixon
nondik etorri?
—Arabatik.
—Zer ekarri?
—Gaztaia eta ogia.
—Non itxi?
—Armairuan.
—Han ez dau.
—Katuak jan dau.

—Katarra mixon
nundik etorri?
—Arabatik.
—Zer ekarri?
—Gastaie eta ogiie.
—Non itxi?
—Armairuen.
—An eztau.
—Katuek jan dau.

Zeanuri (B)

Mixi marrau

Mixi, marrau
katuak jan nau
aitak hil nau
amak jan nau
arreba panpoxak
piztu nau.

Mixi, marrau
katuak yan nau
aitak il nau
amak yan nau
arreba ponpoxak
piztu nau.

Oronoz (N)



Umearen eskuak hartuko dira eta lehenengo esaldia esatean, bere aurpegia laztanduko dugu. Bigarren esaldia esatean, norberaren aurpegia laztandu, eta horrela jarraituko dugu azkeneko esaldira heldu arte. Une horretan umeak bere aurpegitxoan laztantxo "gogorrago" batzuk hartuko ditu.

Mixeri eta mau

Mixeri eta mau,	*Mixeri ta mau,*
zer jan dozu gaur?	*zer yan dozu gaur?*
Txitxi eta papa.	*Txitxi ta papa.*
Niri zergaitik emon ez?	*Niri zeittik emon ez?*
Eta taka, taka, taka.	*Eta taka, taka, taka.*

Mungia (B)

Orain ikus ditzagun txalo egin ahala kantatzeko batzuk.

Txalo pin txalo

Txalo pin txalo	*Txalopin txalo*
txalo eta txalo	*txalo ta txalo*
katutxua mizpila[75]	*katutxue mispilla*
ganean dago.	*ganian dago.*
Badago bego	*Badago bego*
zapatatxu barrien	*zapatatxu barrijen*
begira dago.	*begira dago.*
Gaztelarako	*Gastelarako*
ardaua ekarteko	*ardau ekarteko*
geure umetxoak	*geure umetxuak*
brindo egiteko[76].	*brindo egitteko.*

Elantxobe (B)



[75] Mizpil: níspero.
[76] Brindo egin: brindar.

Talo talotxin

Talo talotxin	*Talo talotxin*
(z)atoz etxera Matxin	*atoz etxera Matxin*
taloa dago adarrean,	*taloa dago adarrean*
bere aulkitxo nabarrean[77].	*bere alkitxo nabarrean*
Ttulut bikoxalean,	*ttulut bikoxalean,*
txirritiko marratiko	*txirritiko marratiko*
Bernardo muxarrean.	*Bernardo muxarrean.*

Orexa (G)



Umea lurrean edo nagusiaren belaunetan eserita dago, nagusiak abesten duen kantuaren erritmoan txalo egiten. Azkeneko esaldia ahalik eta arinen esaten da, eta umeak ezin izango duenez erritmoa jarraitu, barreka hasiko da.

Ttalo, ttalo amatxi!

Ttalo, ttalo amatxi[78]!...	*Ttalo, ttalo amatxi!...*
Non den egun[79], nork daki?	*Non den egun, notaki?*
Erreka xiloan[80] ehortzi.	*Erreka xiloan ehortzi.*
Otsoak jan du ba naski[81]...	*Otsoak jan du ba naski...*
Ba naski, ba naski, ba naski!...	*Ba naski, ba naski, ba naski!...*

Iholdi (Ip)

---

[77] Nabar: pardo -a.
[78] Amatxi: abuela.
[79] Egun: hoy.
[80] Xilo: agujero.
[81] Naski: seguro.

Papera, zotza edo zeozer hartu esku baten barruan, eta atzean gordetzen da. Abestu ondoren, zein eskutan dagoen igarri behar da. Asmatuz gero, igartzailea izango da hurrengoa eskuan gordetzen.

Hor zor, hemen zor

Hor zor, hemen zor	*Or zor, emen zor*
giltza galdu jat	*giltze galdu yat*
giltza topetan nabilela	*giltze topetan nabilela*
kaderea zoldu[82] jat.	*kaderea soldu yat.*
Txakurtxu zuria	*Txakurtxu zurije*
esaizu egia	*esaizu egije*
hor edo hemen	*or edo emen*
borlatxu zuria.	*borlatxu zurije.*

Larrabetzu (B)



[82] Zoldu: enconarse una herida.

Arre-arre egiteko

Umeek oso gustuko dute nagusi batekin arre-arre egitea. Horretarako hainbat esaera eta kanta dago euskaraz. Ikus ditzagun banan-banan.

Umea nagusiaren altzoan egongo da zutik edo eserita. Nagusiak oin puntekin gora eta behera egingo du, arre-arre egongo balitz bezala.

Beste batzuetan nagusia lau hankan ipiniko da, eta umea haren bizkar gainera igoko da, arre-arre egiteko.

Antontxu

Antontxu	*Antontxu*
Antontxu zara zu	*Antontxu zera zu*
kuartilu eta erdigaitik	*kuartillu t'erdigaittik*
ohea saldu dozu.	*oia saldu dozu.*
Aita datorrenean-nean	*Aitte datorrenian nian*
ama datorrenean-nean	*ama datorrenian nian*
etxetik kanpora	*etxetik kanpora*
bialduko zaitu.	*bialduko zaittu.*

Gernika (B)



Arre-arre mandako

—Arre-arre mandako[83]
bihar Tolosarako,
etzi Panplonarako.
—Handik zer ekarriko?
—Zapata eta garriko.

—Arre-arre mandako
bier Tolosarako,
etzi Panplonarako.
—Andik zer ekarriko?
—Zapata ta garriko.

Urduliz (B)

Arre burrikito

Arre burrikito
asto berenoa,[84]
okerreko bidetik
zerk ete daroa?

Arre burrikito
asto berenoa,
okerreko bidetik
zek ete daroa?

Zeanuri (B)



Nagusia eserita dago eta hankak gurutzatzen ditu. Umea bere oinaren gainean ipiniko du, arre--arre eginez.

[83] Mandako: mulo pequeño.
[84] Asto bereno: maldito burro?

Bat eta bi, hiru eta lau

Bat eta bi, hiru eta lau,
Txominek andrea falta dau.
Txominek dauka dendea
sagar ustelez betea.
Sagar ustelak saltzen dauzanean
topauko dau bere andrea.

Bat eta bi, iru t'lau
Txominek andra falta dau.
Txominek deko dendea
sagar ustelaz betea.
Sagar ustelak saltzen dauzanian
topako dau bere andrea.

Urduliz (B)



Umea zutik dago amaren altzoan, eta gerritik edo eskuetatik helduta, amak bere belaunak gero eta arinago mugituko ditu umeak dantzan egin dezan.

Ttikirriki-ttiki-tton

Ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-ttikirriki-tton;
ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-tton;
Ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-ttikirriki-tton;
ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-tton.

Ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-ttikirriki-tton;
ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-tton;
Ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-ttikirriki-tton;
ttikirriki-ttikirriki-ttiki-tton-ki
rrikittiki-tton.

Oiartzun (G)



Ttanpirrinpinttona

Ttanpirrinpinttona	*Ttanpirrinpinttona*
ttipi ttipi ttipi	*ttipi ttipi ttipi*
ttipiripirona	*ttipiripirona*
ttipi ttipi ttipi	*ttipi ttipi ttipi*
ttipiripittona.	*ttipiripittona.*

Ultzama (AN)



Hurrengo hau errezitatzeko da. Umea amaren belaunetan dago eserita, eta nagusiak trostan[85] joango balitz bezala eragingo ditu hankak.

[85] Trostan: trote.

Txili txili mañe

Txili txili mañe
bihar Santa Mañe[86],
etzi Domu Santu,
umea zuloan sartu,
ama negarrez,
aita dolorez,
abadea kantuen
errealen[87] pozez.

Txili txili mañe
bijjer Santa Mañe,
etzi Domu Santu,
umie zuluen sartu,
ama negarrez,
aitte dolorez,
abadie kantuen
errielen pozez.

Abadiano (B)

Nagusiak umea hartzen du bere altzoan, eta zaldiaren apatxurtika[88] irudikatzen du gero eta arinago, pausotik trostara[89]. Azkeneko esaldia esatean, umea besapeetatik hartu, eta ahalik eta goren jaurtiko du.

---

[86] Santa Mañe: Santa Marina.
[87] Erreal: real, moneda corriente.
[88] Apatxurtika: galope.
[89] Trosta: trote.

Kadiran

Kadiran[90], kadiran lumatxa[91],	*Kaderan, kaderan lumatxa,*
xantxin-gorri neskatxa,	*xantxin-gorri neskatxa,*
heldu zaizu mamutxa[92],	*heldu zauzu mamutxa,*
badüzü moko beltza...	*badixi moko beltxa...*
Hupala, hupala, nik altzau!...	*hupala, hupala, nik altxa!...*

Donibane Garazi (Ip)

[90] Kadira: silla.
[91] Lumatxa: almohada.
[92] Mamutx: insecto, bicho.

Lo kantak

Haurra, egizu lotxoa

Haurra egizu lotxoa,
emanen dizut goxoa.
Aitak bat eta amak bi
Jaun zerukoak hamabi.

Aurra, egizu lotxoa,
emanen dizut goxoa.
Aitak bat eta Amak bi,
Jaun zerukoak amabi.

Oskoz (AN)



Binbili-bonbolo

Binbili-bonbolo
zein da lo,
akerra Frantzian balego,
akerra kantan,
idia dantzan,
ahuntzak tanbolina jo.

Binbili-bonbolo
senda lo,
akerra Frantzian balego.
Akerra kantan,
idia jantzan
auntzak tanbolina jo.

Zeanuri (B)



Bonbolontena

Bonbolontena, nire laztana
ez egin lorik basoan.
Ehiztaritxoak eramango zaitu
erbia zaralakoan.
Bo!

Bonbolontena, nere laztana
ez egin lorik basuan.
Aizteritxuak eamango zaitu
erbiya zeralakuan.
Bo!

Bizkaia



Bolon bat eta bolon bi

Bolon bat eta bolon bi
bolon putzura erori,
erori bazen erori
ez zen geroztik ageri.

Bolon bolon bolona,
geure haurra haur ona.
Bolon bolon bolon bolon
bolon bolon bolona.

Gure haurraren haur ona!
balio luke Baiona!
Baiona diruarekin baino
nahiago geure haur ona.

Bolon bolon bolona,
geure haurra haur ona.
Bolon bolon bolon bolon
bolon bolon bolona.

Bolon bat eta bolon bi
bolon putzura erori;
erori bazen, erori
ezta geroztik egarri.

Bolon bolon bolona,
geure aurra aurr ona
Bolon bolon bolon bolon
bolon bolon bolona.

Gure aurraren aurr ona!
Balio luke Bayona,
Bayona diruekin baño
naiago geren aurr ona.

Bolon bolon bolona,
geure aurra aurr ona
Bolon bolon bolon bolon
bolon bolon bolona.

Ultzama (N)



Dingilin dangun

Dingilin dangun eragidazu
laster haziko naiatzu
halan da bere lastertxoago
lepoan banarabilzu.

Dingilin dangun eragi dazu
laster aziko naiatzu
alan da bere lastertxuago
lepuan banarabilzu.

Abadiano (B)



Don, don Beleron

Don, don, Beleron,
Belerongo elizan
zazpi gizon dantzan,
zu mozkorra, ni mozkorra
nahi dabena
nahi dabena
kanpora!

Don, don, Beleron
Belerongo elizan
zazpi gizon dantzan.
Zu mozkorra, ni mozkorra
nai dabena
nai dabena
kanpora.

Elosua (G)



Lo, lo, lo

—Lo lo lo. Aingerua,
zeruan ze barri? (ber)
—Zeruan barri onak
orain eta beti. (ber)

—Lo lo lo. Aingerua,
zeruan ze barri? (ber)
—Zeruan barri onak
orain eta beti. (ber)

Gernika (B)



Logura naz

Logura naz eta loalde[93]
Marti-oilarrak[94] jo dabe,
Marti-oilarrak jo dabe baina
ni hondinokarren logura.

Logure naz ta loalde,
martiollarrak yo daude,
martiollarrak yo daude baie
ni ondikobarren logure.

Zeanuri (B)



Lotxo

Lotxo engainadore
falso traidorea,
lotxok engainako dau
bai gure umea.

Lotxo engañadore
falso traidorea,
lotxok engañako dau
bai gure umea.

Aramaiona (A)



---

93 Loalde: somnoliento.
94 Marti-oilar: gallo de marzo.

Loa, loa! Santa Loa!

Loa, loa! Santa Loa!
Zeruetako Jainkoa:
haurtxo honi emaiozu
ordutxo beteko loa.

Lua, lua! Santa Lua!
Zeruetako Jainkua:
aurtxo oni emanakiyozu
ordutxo beteko lua.

Lezo (G)



Nire maitea

Nire maitea, zein duzu maite?
Nik dudanean dudana:
nik dudanean dudana eta
zu zara nire laztana.

Nire maitia, zein dezu maite?
Nik dedanian dedana;
nik dedanian dedana eta
zu zera nire laztana.

Andoain (G)



Txirrintxanketan

Txirrintxanketan	*Txirrintxanketan*
akerra dantzan	*akerra dantzan*
astoa bibolin-joten,	*astoa bibolin yoten*
azagaria suari puzka,	*azagarie sueri puzke*
erbia uruna eihoten[95].	*erbie urune eioten.*

Zeanuri (B)



Loa loa txuntxurrun berde

Loa loa txuntxurrun berde,	*Loa loa txuntxurrun berde,*
loa loa masusta,	*loa loa masusta,*
aita gurea Gasteizen da	*Aita gurea Gazteizen da*
ama mandoan hartuta:	*ama mandoan artuta:*
lo, lo, lo.	*lo, lo, lo.*
Aita gurea Gasteizen da	*Aita gurea Gazteizen da*
ama mandoan hartuta	*ama mandoan artuta*
aita gureak diru asko du	*aita gureak diru asko du*
ama bidean salduta:	*ama bidean salduta:*
Lo, lo, lo.	*Lo, lo, lo.*

Ataun (G)

[95] Eiho: moler.



Runkuttunku-ttunkuttunku

Runkuttunku-ttunkuttunku
runkuttunku-ttuna;
ttunkurrunku-ttunkuttunku
ttunkuttunku-ttunkuttunku
ttunkurrunku-ttuna.
Loo...
Loo...
Runkuttunku-ttuna.

Runkuttunku-ttunkuttunku
runkuttunku-ttuna;
ttunkurrunku-ttunkuttunku
ttunkuttunku-ttunkuttunku
ttunkurrunku-ttuna.
Loo...
Loo...
Runkuttunku-ttuna.

Oiartzun (G)



ai-aia ai-aio *iz.* paseo. ≈ andi-andi, apapa, atata, aubauba.
aida-aida *iz.* ganado vacuno. *Aida-aida ikusten joango gara.* ≈ mu, mumu, nono, ñoño, ñu, ñuñu, o, oak.
andi-andi *adb.* de paseo. *Joango gara andi-andi?* ≈ ai-aia, apapa, atata, aubauba.
apa *iz.* beso. *Emaiozu apatxo bat amonari laztantxo, badoa eta.* ≈ ma, pa. **2** *iz.* acción de sentarse. ≈ apatx, apatx egin, ñaka, ttaka. ■ **apa egin** *ad. lok., dio* besar. *Osabari baino ez dio apa egiten.* ≈ pa egin, ma egin ǁ **apa eman** *ad. lok., du* besar. *Apa eman zion arrebari oheratu orduko.*
apapa *adb.* a pasear, de paseo. *Den-dena jaten baduzu, apapa joango gara kalera.* (También *apapan* y *apapara.)* ≈ ai-aia, andi-andi, atata, aubauba.
apaka *adb.* besando, a besos. *Gaur apaka eman du egun osoa.* **2** *iz.* beso, besuqueo.
apatx apatxe, apatxin *ad.* acción de sentarse. *Egizu apatx amaren altzoan, kontuak kontatzeko.* ≈ apatx egin, ñaka, ttaka.
apatx egin apatxe egin *ad. lok., du* sentarse. *Apatx egin hortxe bazkaria amaitzeko.* ≈ apatx, ñaka, ttaka.
arrekonkon *iz.* llevar a burros.
atata *adlag.* de paseo, a la calle. *Atata joango gara animaliak ikusten.* (También *atatan.*) ≈ ai-aia, andi-andi, apapa, aubauba.
au-au *iz.* perro. ≈ kakur, nau-nau, toto. **2** *onom.* sonido del ladrido. ≈ kau.
aubauba *adb.* de paseo. ≈ ai-aia, andi-andi, apapa, atata.
aupa *iz.* ¡arriba!, ¡aúpa!, voz que se emplea para animar a alguien a levantarse. ≈ hupa.
aupatx *iz.* de pies, coger en brazos.
bapo *partik.* ¡muy bien!, ¡eso es! *Bapo, umea! Ederto egin duzu!* (Expresión usada para aplaudir la acción de un niño -ña.) **2** *partik.* ¡se acabó!, ¡ya está! *Bapo, amaitu duzu azkaria!* (Expresión usada para indicar a un niño -ña que algo se ha acabado.)
be *iz.* oveja. ≈ nono, ñoño.
bili-bili *iz.* pato.
bilin(bi)-balan(ba) *iz., adb., onom.* talán; sonido del tañido de campana. ≈ binbilin-banbala(u)n, talan-talan.
binbilin-banbala(u)n *iz., adb., onom.* talán; sonido del tañido de campana. ≈ bilin(bi)-balan(ba), talan-talan.
burrun-burrun *iz.* coche. ≈ oto, popot.

da-da *adb., onom.* voz que hace referencia a un golpe, bofetada, etc. *Da-da emango dizut zure jarrera aldatzen ez baduzu, gero!*

enene *iz.* leche. ≈ lele, llollo, nene, ñoño.

fu *iz.* fuego.

hupa *interj.* ¡arriba!, ¡aúpa!, voz que se emplea para animar a alguien a levantarse. *Hupa laztana, etorri nire altzora.* ≈ aupa.

ikiriki *iz.* caballo. ≈ yoyo.

jaka *iz.* vestido, ropa. ≈ ñaka, ttaka.

jitipiti-jatapata *adb., onom.* andar a gatas.

kaka *iz.* suciedad, inmundicia. *Ez hartu ezer lurretik, kaka da-eta.*

kakur *iz.* perro -rra grande. ≈ au-au, nau-nau, toto.

kau *onom.* sonido del ladrido. ≈ au-au.

kauko *iz.* dinero, moneda. *Aitonak beti ematen dio kaukoren bat ilobari.* ≈ txin, txinta, txintxa, xox.

kika *iz.* diente. ≈ kiska, txagin, txantxur.

kiko *adb.* a hombros. *Arinago egiteko kiko hartu du umea aitak.* (Ref. a la posición en que una persona se sienta sobre los hombros de otra colocando sus pies por delante.)

kiska kixka *iz.* diente. ≈ kika, txagin, txantxur.

koko *iz.* caramelo, dulce, chocolate. ≈ kokolo, mokolo, oñoña. **2** *iz.* huevo. ≈ txutxu.

kokoko *iz.* gallina. ≈ kurra, kurrita, pipi.

kokolo kokoilo *iz.* chocolate. *Hori amaituz gero, kokoloa emango dizut.* ≈ koko, oñoña, mokolo.

kokomarro *iz.* Coco. *Kokomarroa ikusi zuela-ta, negar batean hasi zen umea.* (Se trata de un ser fantástico al que se hace referencia para asustar a los niños y niñas pequeños.) ≈ kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao.

kukumarro *iz.* coco. (Se trata de un ser fantástico al que se hace referencia para asustar a los niños y niñas pequeños.) ≈ kokomarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao.

kurra *iz.* gallina. ≈ kokoko, kurrita, pipi.

kurrita *iz.* gallina. *Begitu kurritak!* ≈ pipi, kokoko, kurra.

lala *iz.* manzana; pera. ≈ llalla, patta, txatxa. **2** *iz.* ternero -ra.

larrosatxo larrosatxu *iz.* roseta, rajita, pochita, pesetita; genitales femeninos. ≈ motxin, potxin, potxor, tortola.

lele *iz.* leche. *Lele edan behar duzu ani-ani egiteko.* ≈ enene, llollo, nene, ñoño. **2** *iz.* juguete. ≈ ñiñi, nini.

llalla *iz.* manzana. ≈ lala, patta, txatxa. **2** *iz.* cuchara.

llollo *iz.* sueño, acción de dormir. *Nork egin du llollo?* ≈ lo-lo, momo, momolo, ñiña, ñoño, obaba. **2** *iz.* leche. ≈ enene, lele, nene, ñoño.

lo-lo *iz.* sueño, acción de dormir. *Lo-lo da eta oheratu egin beharko du.* ≈ llollo, momo, momolo, ñiña, ñoño, obaba. ■ **lo-lo egin** *ad. lok., du* dormir. *Lo-lo egiten baduzu, aingerutxoak ikusiko dituzu.* ≈ obaba egin.

ma *iz.* beso. ≈ apa, pa. ■ **ma egin** *ad. lok., du* besar. ≈ pa eman.

mama *iz.* agua; líquido potable. *Har ezazu mama egarria kentzeko.*

mamao *iz.* Bú, Coco. ≈ kokomarro, kukumarro, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao.

mamarro (bizk.) *iz.* Bu, Coco. (Ref. al ser imaginario que se utiliza para asustar a los niños y niñas.) ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao.

mamo *iz.* Bú, Coco. (Ref. al ser imaginario que se utiliza para asustar a los niños y niñas.) ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao. **2** *iz.* piojo; pulga. ≈ momo.

mamoña *iz.* gato -ta. ≈ miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.

mamorro *iz.* Coco, Bu. (Ref. al ser imaginario utilizado para asustar a los niños y niñas.) ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao.

mamu *iz.* Bú, Coco, fantasma imaginario con que se asusta a los niños. ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, momolo, mozorro, mumu, papalo, papao. **2** *iz.* insecto grande. ≈ zomorro.

mau mao *iz.* mordedura. **2** *iz.* robo. ■ **mau egin** *ad. lok., du* morder. ≈ txau egin. **2** *ad. lok., du* comer. ‖ **mau-mau** *onom.* sonido de la acción de comer. *Eta mau-mau, isil-isilik jan zuen platerekoa.*

miau *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.

mimi *iz.* dolor. ≈ minxka, pipi, pupu.

minini *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.

minitx *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.

miñi *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.
miñiña *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.
miñiñi *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.
minxka *iz.* dolor. ≈ mimi, pipi, pupu.
mixina mizina *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixinatxo, mixitxo, ñuña, pis-pis.
mixinatxo mizinatxu *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixitxo, ñuña, pis-pis.
mixitxo mizintxo *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, ñuña, pis-pis.
mokolo *iz.* chocolate. ≈ koko, kokolo, oñoña.
momo *iz.* sueño. ≈ llollo, lo-lo, momolo, ñiña, ñoño, obaba. **2** *iz.* piojo; pulga. ≈ mamo.
momolo *iz.* sueño. ≈ llollo, lo-lo, momo, ñiña, ñoño, obaba. **2** *iz.* Bú, Coco. ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, mozorro, mumu, papalo, papao.
mosto *iz.* morro. *Mosto hori garbitu gabe ez zoaz inora!*
motxin (kolok.) *iz.* rajita, pochita, pesetita; genitales femeninos. ≈ larrosatxo, potxin, potxor, tortola.
mozorro *iz.* Bú, Coco. ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mumu, papalo, papao.
mu *iz.* vaca; buey. *Mu batek ihes egin du kortatik.* ≈ aida-aida, mumu, nono, ñoño, ñu, ñuñu, o, oak.
mumu *iz.* buey, vaca. ≈ aida-aida, mu, nono, ñoño, ñu, ñuñu, o, oak. **2** *iz.* Bú, Coco. (Ref. al ser imaginario con que se asusta a niños y niñas pequeños.) ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, papalo, papao. **3** *iz.* insecto.
naina *iz.* abuelo. (Ref. al gén. masc.) **2** *iz.* castaña.
nauna *iz.* sacerdote; persona respetable. ≈ ñana, ñauña.
nau-nau *iz.* perro grande. ≈ au-au, kakur, toto.
nene *iz.* leche. ≈ enene, lele, llollo, ñoño.
neña *iz.* nene -na, bebé. ≈ nini, ñeño, ñiña, ñoño, txetxe, txotxo.
nini *iz.* niño -ña. ≈ neña, ñeño, ñiña, ñoño, txetxe, txotxo. **2** *iz.* muñeco -ca, juguete. ≈ lele, ñiñi.
nono *iz.* oveja. ≈ be, ñoño. **2** *iz.* toro, vaca. ≈ aida-aida, mu, mumu, ñoño, ñu, ñuñu, o, oak.

ñaka *iz.* vestido, ropas. ≈ jaka, ttaka. **2** *ad., da* sentarse. *Ñaka nire ondoan politori!:* (Usado en imperativo.) ≈ apa, apatx, apatx egin, ttaka.

ñana *iz.* persona respetable. ≈ nauna, ñauña.

ñañan egin *ad. lok., du* comer. *Apapan joateko ñañan egin behar da, gero!*

ñauña *iz.* sacerdote o persona respetable. ≈ nauna, ñana.

ñeño *iz.* niño -ña. ≈ neña, nini, ñiña, ñoño txetxe, txotxo.

ñiña *ad., du* dormir. *Ñiña, behingoz, haurtxo nirea!* (Usado en imperativo.) ≈ llollo, lo-lo, momo, momolo, ñoño, obaba. **2** *iz.* niñito -ta. ≈ neña, nini, ñeño, ñoño, txetxe, txotxo.

ñiñi *iz.* muñeco -ca, juguete. ≈ lele, nini.

ñoño *iz.* leche. ≈ enene, lele, llollo, nene. **2** *iz.* buey, vaca. ≈ aida-aida, mu, mumu, nono, ñu, ñuñu, o, oak. **3** *iz.* niñito -ta. ≈ neña, nini, ñeño, ñiña, txetxe, txotxo. **4** *iz.* oveja. ≈ be, nono. **5** *iz.* sueño. ≈ lo-lo, momo, momolo, ñiña, obaba. **6** *ad., du* dormir. ≈ llollo, lo-lo, momo, momolo, ñiña, obaba.

ñu *iz. iz.* buey, vaca. ≈ aida-aida, mu, mumu, nono, ñoño, ñuñu, o, oak.

ñuña *iz.* gato -ta. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, pis-pis.

ñuñu *iz.* vino. **2** *iz.* buey, vaca. ≈ aida-aida, mu, mumu, nono, ñoño, ñu, o, oak.

o oa *iz.* ganado vacuno. ≈ aida-aida, mu, mumu, nono, ñoño, ñu, ñuñu, oak.

oak *iz.* ganado vacuno. ≈ aida-aida, mu, mumu, nono, ñoño, ñu, ñuñu, o.

obaba ababa *onom.* ro. *Obabatxua lo ta lo / zuk orain eta nik gero, / zuk gura dozun ordutxo baten / biok egingo dogu lo ta lo.* (Popular) (Voz que se usa para arrullar a los bebés.) ≈ llollo, lo-lo, momo, momolo, ñiña, ñoño. ■ **obaba egin** *ad. lok., du* dormir. ≈ lo-lo egin.

oiñe-oiñe oñe oñe *adb.* andando. *Oiñe-oiñe dator gure pitxintxoa.* ≈ pato-pato, piti-pata, pitili-potolo, tipi-tapa.

oñoña oña-oña *iz.* golosina. ≈ koko, kokolo, mokolo.

oto *iz.* tío. **2** *iz.* auto, coche. ≈ burrun-burrun, popot.

pa *iz.* beso. ≈ apa, ma. ■ **pa bota** *ad. lok., du* besar, dar un beso. ‖ **pa egin** *ad. lok., du* besar. ≈ apa egin, ma egin ‖ **pa eman** *ad. lok., dio* besar. ≈ apa eman.

papa *iz.* pan.

papalo *iz.* Coco, Bú. ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papao.

papao papau *iz.* Coco, Bú. ≈ kokomarro, kukumarro, mamao, mamarro, mamo, mamorro, mamu, momolo, mozorro, mumu, papalo.

papata *iz.* zapato.

pato-pato *adlg.* andando. ≈ oiñe-oiñe, piti-pata, pitili-potolo, tipi-tapa.

patta *iz.* fruta. ≈ lala, llalla, txatxa.

paun egin *ad. lok., du* caerse. ≈ plaust egin, pun egin, punba(la) egin.

piti-pata *adlg.* andando. ≈ oiñe-oiñe, pato-pato, pitili-potolo, tipi-tapa.

pitili-potolo *adlg.* andando. ≈ oiñe-oiñe, pato-pato, piti-pata, tipi-tapa.

pitilin pitxilin *iz.* colita; genitales masculinos. ≈ txilin.

pipi *iz.* gallo, gallina y toda clase de aves. ≈ kokoko, kurra, kurrita. **2** *iz.* dolor. ≈ minxka, mimi, pupu.

pis-pis *iz.* gato. ≈ mamoña, miau, minini, minitx, miñi, miñiña, miñiñi, mixina, mixinatxo, mixitxo, ñuña.

pitxi *iz.* dije, objeto de adorno. **2** *iz., adj.* lindo -da, hermoso -sa, objeto bonito.

pitxin *interj.* cariño, querido -da.

plaust egin *ad. lok., du* caerse. ≈ paun egin, pun egin, punba(la) egin.

plisti-plasta blist-blast, blisti-blasta *onom.* sonido del chapoteo en el agua. *Gure umeari plisti-plasta egitea ezer baino gehien gustatzen zaio.* ≈ txipli-txapla, zapla-zapla.

popa *iz.* sopa.

popina *iz.* muñeca. *Popinekin jolasten du gehien bat.*

popot *iz.* coche. ≈ burrun-burrun, oto.

potxin (kolok.) *iz.* parte pudenda femenina; genitales femeninos. ≈ larrosatxo, motxin, potxor, tortola.

potxolon *interj.* palabra cariñosa dirigida a los chicos -as. ≈ potxolustre, potxon.

potxolustre *interj.* palabra cariñosa dirigida a los niños -as. ≈ potxolon, potxon.

potxon *interj.* palabra cariñosa dirigida a los niños. ≈ potxolon, potxolustre.

potxu *iz.* roca grande.

potxor (kolok.) *iz.* parte pudenda femenina; genitales femeninos. ≈ larrosatxo, motxin, potxin, tortola.

pun egin punp egin *ad. lok., du* caerse. ≈ paun egin, plaust egin, punba(la) egin.

punbala egin *ad. lok., du* caerse. ≈ paun egin, plaust egin, pun egin.

pupu pupa *iz.* dolor, daño. *Lau ziriren pupua eta zortzi marairen trapua:* Dicho con el que se denota que los aspavientos y remedios son mayores que el propio dolor. ≈ mimi, minxka, pipi.
■ **pupu egin** *ad. lok., du* hacer(se) daño. *Pupu egin duzu*?

saskili-baskili *adj., adb.* embadurnado -da; sucio -cia.

sein *iz.,* niño -ña, especialmente el/la menor de los/las hijos -jas. *Etxeko seina da.*

ta egin *ad. lok., du* pegar, dar una azotaina. ≈ ta-ta egin, tale-tale egin, tas-tas egin, te-te egin, txatxi egin.

ta-ta egin *ad. lok., du* pegar, dar una zurra. (También *tale-egin.*) ≈ ta egin, tale-tale egin, tas-tas egin, te-te egin, txatxi egin.

talan-talan *iz., adb., onom.* talán; sonido del tañido de campana. ≈ bilin(bi)-balan(ba), binbilin-banbala(u)n.

tale-tale egin *ad. lok., du* pegar, dar una zurra. (También *tale-egin.*) ≈ ta egin, ta-ta egin, tas-tas egin, te-te egin, txatxi egin.

talotxin *iz.* palmoteo.

tarea emon/eman *ad. lok., dio* zurrar, calentar el trasero. *Tarea emango dizut, gero!*

tas-tas egin *ad. lok., dio* pegar. *Ez jo umea, amatxok tas-tas egingo dizu zuri.* ≈ ta egin, ta-ta egin, tale-tale egin, te-te egin, txatxi egin.

tata *iz.* niñera.

tatan ttattan *iz.* el/la niño -ña menor de la familia. ≈ sein.
■ **tatan(txo) egin** *ad. lok., du, dio* acariciar. *Egiozu tatantxo amatxori, pitxin* ‖ **tatana gozoa egin** *ad. lok., du* acariciar.

tati (arr.) *adb.* quieto, despacio.

tato ttatto *iz.* salto.

tete egin *ad. lok., dio* pegar. ≈ ta egin, ta-ta egin, tale-tale egin, tas-tas egin, txatxi egin.

tipa-tapa *adlg.* andando. ≈ oiñe-oiñe, pato-pato, piti-pata, piti-li-potolo.

tirrin *iz.* ombligo. ≈ txirrin.

tortola (kolok.) *iz.* pochita, pesetita; genitales femeninos. ≈ larrosatxo, motxin, potxin, potxor.

toto *iz.* perro -rra. ≈ au-au, kakur, nau-nau.

ttaka *iz.* (acción de) sentarse. ≈ apa, apatx, apatx egin, ñaka. **2** *iz.* vestido, ropa. ≈ jaka, ñaka ■ **ttaka-ttaka** *adb.* a paso corto, pasito a pasito.
ttentte *adj., adb.* tieso -sa, duro -ra, firme, rígido -da. **2** *adb.* de pie. ≈ ttutti.
ttili *iz.* cerdo.
ttutti *adb.* de pie. ≈ ttentte.
txagin *iz.* diente. ≈ kika, kiska, txantxur.
txa *iz.* golpe con la mano.
txalo pin txalo *lok.* aplauso. *Txalo pin txalo, txalo eta txalo katutxua mesperu ganean dago.* (Exclusivamente en canciones.) ≈ txalo pitin.
txalo pitin *iz.* aplauso. ≈ txalo pin txalo.
txantxan *adlg.* bailando.
txantxur txatxur *iz.* diente. *Txantxur berria duzu, bihotza.* ≈ kika, kiska, txagin.
txatxa xaxa *iz.* fruta. ≈ lala, llalla, patta.
txatxi egin *ad. lok., du* pegar. ≈ ta egin, ta-ta egin, tale-tale egin, tas-tas egin, te-te egin.
txau egin *ad. lok., du* ladrar el perro pequeño. **2** *ad. lok., du* morder. ≈ mau egin.
txetxe *iz.* niño -ña. ≈ neña, nini, ñeño, ñiña, ñoño, txotxo.
txilin *iz.* colita; genitales masculinos. ≈ pitilin.
txin *iz.* dinero. *Emadazu txin.* (Frec. en plural.) ≈ kauko, txinta, txintxa, xox.
txinta *iz.* dinero. ≈ kauko, txin, txintxa, xox.
txintxa *iz.* dinero. ≈ kauko, txin, txinta, xox.
txintxirrin *iz.* sonajero.
txipli-txapla txipi-txapa *adb., onom.* chapoteando en el agua. ≈ plisti-plasta, zapla-zapla.
txirran *adb.* rodando.
txirrin *iz.* ombligo. ≈ tirrin.
txitxi xitxi *iz.* carne o pescado. *Gaur jateko txitxi dago.*
txotxo *iz.* niño. *Gure txotxo ikastolara hasten da gaur.* ≈ neña, nini, ñeño, ñiña, ñoño, txetxe.
txotxotxu *iz.* niñito.
txutxu susu, xuxu *iz.* huevo. ≈ koko.
xox xoxa (espr.) *iz.* dinero en general. ≈ kauko, txin, txinta, txintxa.
xoxolin *iz.* cariño, cosa bonita, amado -da.
xupi *iz.* golpe. **xupi egin** *ad. lok., du* golpear(se); llamar a la puerta.

yoyo *iz.* caballo, cabalgadura. ≈ ikiriki.
zapla-zapla *adb., onom.* chapoteando en el agua. ≈ plisti-plasta, txipli-txapla.
zoko egin *ad. lok., du* meter todas las canicas en el agujero.
zomorro *iz* insecto grande. ≈ mamu.

Bibliografía

ASKOREN ARTEAN, *Labayru Hiztegia. Bizkaiera eta Batua (h)uztarturik*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Ibaizabal, 2003.

ASKOREN ARTEAN, *Ahozko literatura: genero txikiak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1991.

ASKOREN ARTEAN, *Haur literatura*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1993.

ASKOREN ARTEAN, *Kantutik jolasera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1997.

ASKOREN ARTEAN, *Katuen testamentua*. Bilbo: Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Ikastolen Elkartea, 1993.

AZKUE, Resurrección Maria de, *Euskalerriaren Yakintza. (Literatura popular del Pais Vasco)*. Madrid: Tomos I, III y IV, Espasa Calpe, 1935, 1945 y 1947.

–*Cancionero popular vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990.

BARANDIARAN, Jose Migel de, *Anuario de Eusko Folklore*. Vitoria: Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza, 1923 y 1930.

DONOSTIA, Aita, *Cancionero Vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994.

ETNIKER EUSKALERRIA; *Juegos infantiles en Vasconia*. Bilbo: Etniker Euskalerria, Eusko Jaurlaritza eta Gobierno de Navarra, 1993.

–*Medicina popular vasca*. Bilbo: Etniker Euskalerria, Eusko Jaurlaritza eta Gobierno de Navarra, 2004.

EUSKARAZ MINTZO, *Kontu txikiak haur eta gurasoen gozamenerako*. Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Kutxa. 2003.

GARMENDIA, Juan, *Juegos infantiles*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta El Correo Español, 1995.

PEIO TA PANTXOA, *Oles ta oles. Urte Sasoiak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Ikastolen Elkartea, Elkarlanean, 1997.

DUHALDE ANJE, *Pinpirin eta florian*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Ikastolen Elkartea, Elkarlanean, 2000.

Bestelakoak:

Euzkadi, 1927

http/bideoteka.ehu.es

www.euskomedia.org, *euskal kantutegia*.

HABENET, *Kantu kantari*.

Labayru Ikastegiak duen argitaratu gabeko fonoteka.